



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 16a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (4. or.).
- Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzeko duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzekoaren eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzekoaren eta dagoenari eustekoaren bidetik. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoa dela-eta Alderdi Popularrak proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautaketa bermatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean azterlan bat egin dezan, jakiteko ea Deikazteluko “Virgen de Nievas” ikastetxearen egungo eraikina mantendu behar den ala ikastetxe berri bat eraiki behar den. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak eta ADIF premiatzen dira akordio bat lor dezaten lehenbailehen, Nafarroan dauden trenbide-pasaguneak al bait azkarren kentzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berriazko kanpaina bat presta, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa onetsi zuen, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturikoa, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa onetsi zuen, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturikoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa onetsi zuen, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturikoa, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa onetsi zuen, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko Foru Lege proiektuari aurkezturikoa: "Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea

erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen osoko zuzenketa bazter uztea, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Proposamen hori herriaren legegintza-ekimenaren Batzorde Sustatzaile batek aurkeztu zuen, zeinaren ordezkaria

Pablo Sánchez González jaunak baita, eta 2013ko abenduaren 17ko 147. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa. Proposamen hori herriaren legegintza-ekimenaren Batzorde Sustatzaile batek aurkeztu zuen, zeinaren ordezkaria

Ramón Morcillo Navaz jaunak baita, eta 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzearen eta dagoenari eustearen bidetik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzearen eta dagoenari eustearen bidetik"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintzailtza sustatzeko neurriak har ditzan, izapide administratiboak erraztearen, Nafarroako enpresen esportazio-gaitasuna sustatzearen eta Foru Komunitatera kanpoko inbertsioa erakartzearen eta dagoenari eustearen bidetik, mozio honen zioen azalpenean adierazita-koarekin bat"

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 9an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketari buruz"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Ikastetxe publikoetako ardura-postuen hautaketari buruzko azterlan bat egin dezan; zehazki, zuzendariarena.

Azterlan horrek zenbait neurri jorratuko ditu; besteak beste, postu horietan modu boluntarioan aritu nahi duten funtzionarioen kopurua areagotzeko neurriak"

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta Alderdi Popularrak proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautaketa bermatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta Alderdi Popularrak proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautaketa bermatzen duena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuak premiatzen du errefusa dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa dela-eta Alderdi Popularrak proposatzen duen aldaketa, alkateen zuzeneko hautaketa bermatzen duena”.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hiru hilabeteko epean azterlan bat egin dezan, jakiteko ea Deikazteluko “Virgen de Nieves” ikastetxearen egungo eraikina mantendu behar den ala ikastetxe berri bat eraiki behar den.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hiru hilabeteko epean azterlan bat egin dezan, Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hiru hilabeteko epean azterlan bat egin dezan, jakiteko ea Deikazteluko “Virgen de Nieves” ikastetxearen egungo eraikina mantendu behar den ala ikastetxe berri bat eraiki behar den”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du azterlan bat egin dezan 3 hilabeteko epean, jakiteko ea Deikazteluko “Virgen de Nieves” ikastetxearen egungo eraikina mantendu behar den ala ikastetxe berri bat eraiki behar den eta, edozein kasutan, egitea erabakitzen den jarduketan egutegia ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du instalazioen egoera duin bat berma dezan, zein ere diren egiten den azterlaneko ondorioak, Deikazteluko “Virgen de Nieves” ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez”.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak eta ADIF premiatzen dira akordio bat lor dezaten lehenbailehen, Nafarroan dauden trenbide-pasaguneak al bait azkarren kentzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak eta ADIF premiatzen dira akordio bat lor dezaten lehenbailehen, Nafarroan dauden trenbide-pasaguneak al bait azkarren kentzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka larria adierazten du gure erkidegoan oraindik ere trenbi-

de-pasaguneak daudelako; izan ere, orain dela gutxi Berriozarren ikusi ahal izan denez, arrisku larria dakarte, bai eta ondorio tamalgarri eta konponezinak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko gobernuak eta ADIF premiatzen ditu akordio bat lor dezaten lehenbailehen, Nafarroan dauden trenbide-pasaguneak al bait azkarren kentzeko”.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat presta, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat presta, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat presta, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena”.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Amaya Zarranz Errea andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburu eta eskola-materialen kontrola susta dezan, LOMCE legea Nafarroan ezartzea dela eta."

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

